



**IBILGAILUAK ERAIKINETARA ETA
ORUBEETARA BIDE PUBLIKOETAN ZEHAR
SARTZEKO PASABIDEEN ORDENANTZA
ARAUTZAILEA
2009ko Urtarrila**

**ORDENANZA REGULADORA DE LOS PASOS
DE VEHICULOS A EDIFICIOS Y SOLARES A
TRAVÉS DE VIAS PUBLICAS.**

Enero 2009

ZIOEN AZALPENA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua ezarritakoaren arabera, Hernaniko Udalak beharra ikusi du modu espezifikoan eta integrean ordenatzeko ibilgailuak udalerriko higiezinetara bide publikoetan zehar sartzeko pasabideak baimentzeko araubidea.

Ordenantza honen helburua da jabari publiko horien erabilera okerra saihesteko kontrol mekanismoak arautzea, administrazioaren jardueraren irizpideak bateratuz, segurtasun juridikoaren printzipioa eta, haren ondorioz, herritarraren bermeak indartzeko tresna gisa.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua eta definizioa.

Udal Ordenantzak hauxe arautu nahi du: ibilgailuak eraikitako edo eraiki gabeko higiezinetara sartzeko bide publikoaren erabilera bereziko baimenei aplikatu beharreko erregimen juridikoa eta, era berean, haien eraikuntza eta seinaleztapenaren ezaugarriak.

Ordenantza honetan ibilgailuen pasabidetzat hartuko dugu jabari publikoaren alderdia, non, behar den baimena izanda, posible izango baita ibilgailuak higiezin batetik ateratzea edo bertara sartzeko bide publikoa zeharkatuz.

Ibilgailuak igarotzeko baimen horri pasabide ere deituko zaio.

EXPOSICION DE MOTIVOS

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, el Ayuntamiento de Hernani ha estimado la necesidad de proceder a ordenar de manera específica e integral, el régimen de autorización para la concesión de pasos de vehículos a través de las vías públicas a inmuebles sitios en el término municipal.

El objetivo de esta ordenanza es regular los mecanismos de control que eviten la incorrecta utilización del dominio público afectado unificando los criterios en la actuación administrativa como instrumento para reforzar el principio de seguridad jurídica y como consecuencia de ello las garantías del ciudadano.

TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto y definición.

Es objeto de la presente Ordenanza Municipal la regulación del régimen jurídico aplicable a las autorizaciones o licencias de uso especial de la vía pública para paso de vehículos a inmuebles, edificados o sin edificar, su construcción y las características de su señalización.

A los efectos de la presente ordenanza, se entiende por paso de vehículos aquella parte del dominio público por donde se permite, mediante la correspondiente autorización, la entrada y/o salida de vehículos de un inmueble a través de la vía pública.

Esta autorización de paso de vehículos se denomina también vado.



2. artikulua.- Aplikazio eremua.

Ordenantza hau Hernaniko Udalerri osoan aplikatuko da.

3. artikulua. Baimen motak.

1. Baimenak mugagabeak edo behin-behinekoak izan daitezke.

- a) Pasabidea mugagabea da baimenean aprobetxamenduaren iraupena zehazten ez denean.
- b) Behin-behinekoa da baldin eta baimena helburu zehatz bat betetzeko lortu badu eta aprobetxamenduaren amaieraren data zehatza bada. Kasu horretan, eskaeran espresuki adierazi beharko da baimena behin-behinekoa dela, eta, halaber, adierazi beharko dira baimena justifikatzen duen helburua eta pasabidea behar den denbora.

Baimen batzuen zein besteen erabilera etengabea zein ordukakoa izan daiteke.

2. Pasabide iraunkorrak: Ibilgailuak eguneko 24 orduetan pasatu ahal izango dira, eta ezin izango da ibilgailurik aparkatu haien aurrean.

Pasabide iraunkorren baimena honako kasuetan emango da:

- a) Estatuaren, Eusko Jaurlaritzaren, Probintziaren, Udalaren edo bestelako Erakunde eta Instituzioen Zentro Ofizialak eta Bulegoak, betiere kasuan kasuko interes orokor eta publikoko arrazoiak tartean direnean eta Erakunde horiek baimena eskatu eta Ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean.
- b) Garaje edo aparkaleku publiko zein pribatuak
- c) Familia bakarreko edo biko etxebizitzetako garajeak.
- d) Gasolina zerbitzuguneak (gasolindegia) (Akarregi, Chillida-Leku).
- e) Garraio Zerbitzu Publikoko enpresak.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La presente Ordenanza será de aplicación en todo el Término Municipal de Hernani.

Artículo 3. Clases de autorizaciones.

1. Las autorizaciones podrán concederse con carácter indefinido o provisional.

- a) Es indefinido el paso cuando la autorización no especifica la duración del aprovechamiento.
- b) Es provisional si, por otorgarse para el cumplimiento de una finalidad concreta, la autorización determina la fecha prevista para la finalización del aprovechamiento. En este caso, en la solicitud deberá hacerse constar expresamente que se solicita con carácter provisional, la finalidad que justifica su otorgamiento y el tiempo de utilización del paso que se precisa.

El uso de unas y otras autorizaciones podrá ser permanente u horario.

2. Vados de uso permanente: Permitirán el paso de vehículos durante las 24 horas del día y frente a los mismos no podrá ser estacionado vehículo alguno.

La autorización de vado permanente se concederá en los siguientes supuestos:

- a) Centros Oficiales y Dependencias del Estado, Gobierno Vasco, Provincia, Municipio o Entidades e Instituciones por las razones de interés general y público que en cada caso concurran y previa solicitud de dichos Organismos con cumplimiento de los requisitos que se prevén en esta Ordenanza.
- b) Garajes o aparcamientos públicos o privados
- c) Garajes destinados a vivienda unifamiliar o bifamiliar.
- d) Estaciones de servicio (Gasolineras) (Akarregi, Chillida-Leku).
- e) Compañías explotadoras de Servicio



- f) Klinikak, Erieteak edo Asistentzia Zentroak, ambulanzien sarrera eta irteerarako.
- g) Salbuesenez, baimen iraunkorrak eman ahal izango zaizkie merkataritzako edo zerbitzuetako lokalei, baldin eta sarbide iraunkor horren beharra justifikatuta badago. Baimen horiek, nolahi ere, aukerakoak izango dira.

3. Ordukako pasabideak: Ibilgailuak pasatu ahal izango dira egunean 12 orduetan zehar gehienez ere, larunbat arratsaldetan eta jaiegunetan izan ezik.

Aurreko ataleko kasuez gain, baimen mota hori ondorengo kasu hauetan ere emango da:

- a) Industria edo merkataritza jardueretako biltegiak.
- b) Eraikuntza, eraipen, zaharberitze eta konpontze lanak.
- c) Ibilgailuak konpontzeko tailerrak, ibilgailuen kontzesionarioak, ibilgailu erabilien salerosketa.
- d) Ezaugarri berdintsuetako beste jarduera batzuk, baldin eta Udalak baimendu baditu.

Udalak zehaztuko ditu pasabidearen erabilera orduak, betiere interesdunak egindako eskaera kontuan hartuta.

Larunbat arratsaldetako eta jaiegunetako ordukako pasabidea salbuesenezko egoeratan baino ez da baimenduko, eta soilik beharrezkotzat jotzen denean.

II. TITULUA. BAIMENEN ERREGIMEN JURIDIKOA

I. KAPITULUA. Baimenei buruz, oro har

4. artikulua. Arau orokorrak.

- 1. Ibilgailuen pasabideek Udalaren baimena izan beharko dute, ordenantza honetan ezarritakoaren

Público de Transporte.

- f) Clínicas, Sanatorios o Centros Asistenciales, para entrada y salida de ambulancias.
- g) Excepcionalmente, podrán concederse autorizaciones de carácter permanente a favor de aquellos locales en los que se ejerza una actividad comercial o de servicios cuando se justifique la necesidad de un acceso permanente. La concesión de estas autorizaciones será discrecional.

3. Vados de uso horario: Permitirán el paso de vehículos durante 12 horas diarias como máximo, a excepción de sábados tarde y festivos.

Además de los supuestos contemplados en el apartado anterior, esta clase de autorización podrá ser concedida en los siguientes casos:

- a) Almacenes de actividades industriales o comerciales.
- b) Obras de construcción, derribo, reforma y reparación de edificios.
- c) Talleres de reparación de vehículos, concesionarios de automóviles, compraventa de vehículos usados.
- d) Otras actividades de características análogas cuyo funcionamiento esté debidamente autorizado por el Ayuntamiento.

Las horas de uso de vado se señalarán por el Ayuntamiento a solicitud de los interesados.

El vado de uso horario los sábados por la tarde y días festivos se concederá con carácter excepcional y siempre justificadamente en los casos en que se estime necesario.

TÍTULO II. RÉGIMEN JURÍDICO DE LAS AUTORIZACIONES

CAPÍTULO I. De las autorizaciones en general

Artículo 4. Normas generales.

- 1. Los pasos de vehículos requieren la previa obtención de autorización municipal en los



arabera.

2. Ibilgailuen pasabidea egiteko obra egin behar bada, pasabiderako baimenaz gain, obra baimena ere beharko da.

3. Obra behar duen ibilgailuen pasabide baterako baimena eskatzen duenak bi aukera izango ditu: berak egitea obra zuzenean edo Udal Zerbitzuek egitea.

5. artikulua. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

1. Hauexek eskatu ahal izango dute ibilgailuen pasabiderako baimena:

- a) Pasabidea sarbide izango duten higiezinen jabeek edo zuzenbidean baliozkoa den edozein titulu dela medio edukitzaile legitimoak direnek edota bertako jardueretan aritzen direnek.
- b) Jabeen erkidegoek edo haien elkarteek, behar bezala ordezkatuta, jabetza horizontalaren araubidearen menpeko higiezinen kasuan.
- c) Obregatikoko behin-behineko pasabideen kasuan, obrako jabeek edo ibilgailuen pasabidea behar duten eraikuntza obrak egiten ari direnek.
- d) Udal kontzesioetan, kontzesiodunek.

2. Baimenak sortutako gastu guztiak eskatzaileek berek ordaindu beharko dituzte.

3. Baimenen titularrak arduratuko dira ibilgailuen pasabideko erabiltzaileek behar bezala erabiltzen dutela egiaztatzeaz.

6. artikulua. Baimenaren titularraren aldaketak.

Pasabide baimena eskualdatu daiteke. Baimenaren titulartasun aldaketak idatziz

términos previstos en esta ordenanza.

2. Las autorizaciones de pasos de vehículos con ejecución de obras deberán contar con la correspondiente licencia de obras.

3. El solicitante de la autorización de un paso de vehículos que implique la realización de obras podrá optar entre efectuar directamente las obras o solicitar su ejecución por los servicios municipales.

Artículo 5. Requisitos subjetivos.

1. Podrán solicitar la autorización para pasos de vehículos:

- a) Los propietarios o quienes por cualquier título válido en derecho sean poseedores legítimos de los inmuebles a que den acceso dichos pasos o ejerzan las actividades a cuyo servicio se destinan los mismos.
- b) Las comunidades de propietarios, o agrupaciones de éstas, debidamente representadas, en el caso de inmuebles sujetos al régimen de propiedad horizontal.
- c) En los supuestos de pasos provisionales por obras, los dueños de la obra o los que realicen las construcciones para cuyo acceso se solicita el paso de vehículos.
- d) En las concesiones municipales, los concesionarios.

2. Todos los gastos a que de lugar esta licencia o autorización correrá a cargo de los interesados solicitantes.

3. Los titulares de las autorizaciones serán los responsables de la correcta utilización del paso de vehículos por parte de los usuarios del mismo.

Artículo 6. Cambios del titular de la autorización.

La licencia de vado es transmisible. Los cambios de titularidad de la autorización deberán



jakinaraziko zaizkio Udalari, hamar eguneko epean hura justifikatzen duen egintza edo negozioa duten dokumentua izenpetzen denetik kontaktzen hasita, Udalak haien berri izan eta emandako baimenaren datuak aldatu ahal izan ditzan.

Jakinarazpen hori –eskualdatu nahi den baimenaren kopia erantsiko zaio– titular berriak eta zaharrak egin beharko dute, dagokion eskaera orria beteta. Hala eta guztiz ere, aurreko titularraren jakinarazpenaren orde, aldaketa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu daiteke.

Jakinarazpen hori bidali ezean, bienak izango dira baimenaren titularrari etor dakizkiokeen ardurak.

Udalak titulartasun aldaketa hori jaso izana jakinaraziko die interesdunei, eskaera aurkezten denetik hilabeteko epean.

7. artikulua. Baimenaren aldaketak.

Baimendutako pasabidearen ezaugarri fisiko edo juridikoetan eragina izan dezakeen beste edozein aldaketa balitz, edota haren amaiera eragin dezakeen beste edozer gauza gertatuko balitz, Udalari jakinarazi beharko zaio hamar eguneko epean, aldaketa gertatzen denetik kontaktzen hasita.

Udalak aldaketa horren berri jaso izana jakinaraziko die interesdunei, jakinarazpena aurkezten denetik hilabeteko epean.

8. artikulua. Behin-behineko baimenen luzapenak.

Behin-behineko pasabideen luzapenak emango dira interesdunak aurretik eskatuta, betiere haren beharra justifikatzen bada eta baimena bukatzeko aurreikusitako data zehazten bada. Nolanahi ere, eskaera hori aurkeztu beharko da pasabidearen

erabilpenerako baimendu den epea bukatu baino lehen.

comunicarse por escrito al Ayuntamiento correspondiente en el plazo de diez días desde el siguiente a aquel en que se formalice el documento que contenga el hecho, acto o negocio que los justifique, al objeto de que pueda tomar conocimiento de los mismos y modificar los datos de la autorización concedida.

Dicha comunicación, a la que se acompañará copia de la autorización que se pretende transmitir, deberá realizarse por el antiguo y el nuevo titular, cumplimentando al efecto la correspondiente solicitud. No obstante, la comunicación del titular anterior podrá ser sustituida por la documentación acreditativa de dicho cambio.

La falta de comunicación determinará que ambos sujetos queden sometidos a todas las responsabilidades que se deriven para el titular de la autorización.

La toma de conocimiento de dicho cambio de titularidad será comunicada a los interesados en el plazo de un mes desde la presentación de la citada solicitud.

Artículo 7. Modificaciones de la autorización.

Cualquier otro cambio o modificación que afecte a las circunstancias físicas o jurídicas del paso autorizado, así como cualquier otro supuesto que pueda determinar su baja, deberá comunicarse igualmente al Ayuntamiento correspondiente en el plazo de diez días a contar desde el siguiente a aquel en que tenga lugar.

La toma de conocimiento de dichos cambios será notificada a los interesados en el plazo de un mes desde la presentación de la citada comunicación.

Artículo 8. Prórrogas de autorizaciones provisionales.

Las prórrogas de los pasos provisionales se concederán, previa petición del interesado, justificando su necesidad e indicando la nueva fecha de finalización prevista. Dicha petición deberá presentarse, en todo caso, antes de que

finalice el plazo para el que se hubiera autorizado la utilización del paso.



9. artikulua. Baimena etetea

Udalak behin-behineko baimena eten ahal izango du, trafiko gorabeherengatik, bide publikoan obrak egin direlako edo bestelako egoera bereziengatik.

10. artikulua. Baimenak baliogabetzea.

1. Udalak baimenak baliogabetu ahal izango ditu honako kasuetan:

- a) Eman ziren helburuetara zuzentzen ez badira.
- b) Haiek ematea eragin zuten arrazoiak edo egoerak bertan behera geratu badira.
- c) Urteko prezio publikoa ordaindu ez bada.
- d) Ordutegiei buruzko baldintzak betetzen ez badira edo seinaleztapen egokirik ez badu.
- e) Trafiko gorabeherengatik edo bide publikoaren inguruko beste egoera batzuegatik.
- f) Zoladura behar bezala zaintzen ez bada.
- g) Pasabidea erabiltzen ez bada edo behar bezala erabiltzen ez bada.
- h) Lokalak betetzen ez baditu pasabide mota bakoitzerako eskatutako baldintzak.
- i) Ordenantza honetan edo pasabidearen baimenean ezarritako zehaztapenak betetzen ez badira.

2. Era berean, baliogabetu ahal izango dira haiek ematea eragin zuen egoera desagertu bada, edo, geroago, baimena ezestea ekarriko zuketen bestelako arrazoiak agertzen badira.

3. Baimena baliogabetzearekin batera, pasabidea ere kenduko da, eta, hala badagokio, espaloia lehen zegoen bezala utzi eta seinaleak kendu egin beharko dira; titularrak ordaindu beharko ditu horrek sor ditzakeen gastuak, baldin eta baimena oker bat eginez eman ez bada, edota baimena baliogabetu ez bada hura emateko irizpideak aldatu direlako.

4. Halaber, ibilgailuen sarbidearen baimena baliogabetzea edo hari baja ematea eskatzen

Artículo 9. Suspensión de la licencia.

El Ayuntamiento podrá suspender por razones del tráfico, obras en vía pública u otras circunstancias extraordinarias los efectos de la autorización con carácter temporal.

Artículo 10. Revocación de las autorizaciones.

1. Las autorizaciones podrán ser revocadas por el Ayuntamiento en los siguientes casos:

- a) Por ser destinadas a fines distintos para los que fueron otorgados.
- b) Por haber desaparecido las causas o circunstancias que dieron lugar a su otorgamiento.
- c) Por no abonar el precio público anual correspondiente.
- d) Por incumplir las condiciones relativas a los horarios o carecer de la señalización adecuada.
- e) Por causas motivadas relativas al tráfico o circunstancias de la vía pública.
- f) Por la falta de conservación en perfecto estado del pavimento.
- g) Por la falta de uso o uso indebido del vado.
- h) Por no reunir el local los requisitos exigidos para cada clase de vado.
- i) Por el incumplimiento de cualquiera de las determinaciones impuestas en esta Ordenanza o en la autorización de paso.

2. Podrán ser revocadas igualmente cuando desaparecieran las circunstancias que motivaron su otorgamiento o sobrevinieran otras que, de haber existido, habrían justificado la denegación.

3. La revocación de la autorización llevará aparejada la orden de supresión del paso, teniendo que restituirse, en su caso, la acera al estado original y retirar la señalización, siendo a costa del titular los gastos que de ella se deriven, salvo cuando la autorización haya sido otorgada erróneamente o la revocación se funde en la adopción de nuevos criterios de apreciación.

4. Así mismo, cuando sea solicitada la baja o anulación de la autorización de entrada de



denean lokala ez delako jada erabiltzen aparkaleku gisa edo jarduera bertan behera utzi delako, seinale guztiak kendu, espaloiko ertza zegoen bezala utzi eta plaka Udal Zerbitzuetan entregatu beharko da.

Udal Zerbitzuek baldintza horiek guztiak bete direla egiaztatu ondoren, eskatutako baja emango zaio eskatzaileari.

5. Udaltzaingoak kendu eta baliogabetu ahal izango ditu entregatu ez diren plakak.

6. Hernaniko Udalak, interes orokorreko irizpideei erantzunez, eskubidea izango du edozein momentutan baliogabetzeko emandako baimenak, eta, kasu horretan, titularrek ez dute inolako eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko.

II. kapitulua. Prozedura

11. artikulua. Hasiera eta dokumentazioa.

1. Prozedura hasiko da ibilgailuen pasabiderako baimena eskatzen denean. Haren beharra adierazi eta justifikatzeaz gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Ibilgailuen pasabideak sarbidea ematen duen higiezinaren jabetza titulua edota haren legezko okupazioa egiaztatzen duen beste edozein titulu eta, nolabehere, jabearen identifikazio datuak.
- b) Jarduera babesten duen hirigintza baimena, indarreko araudiak hala agintzen duenean.
- c) 1/500 eskalako kokapen plano, higiezinaren egoera adierazita.
- d) Ibilgailuak aparkatzeko eremua irudikatzen duen 1/100 eskalako plano. Eremu hori ezin izango da inolaz ere 20 m² baino txikiagoa izan ibilgailu bakoitzeko. Horrez gain, adierazi beharko

vehículos que se venía disfrutando por dejar de usar el local como aparcamiento o cesar la actividad correspondiente, se deberá suprimir toda la señalización, reparar el bordillo de la acera al estado inicial y entregar la placa en los Servicios Municipales correspondientes.

Previa comprobación del cumplimiento de estos requisitos por los Servicios Municipales correspondientes, se procederá a la concesión de la baja solicitada.

5. Las placas no entregadas podrán ser retiradas y anuladas por la Guardia Municipal.

6. El Ayuntamiento de Hernani se reserva el derecho a dejar sin efecto las autorizaciones a que se refiere esta Ordenanza en cualquier momento, sin derecho a indemnización alguna por parte de quienes las disfruten, atendiendo siempre a criterios o circunstancias de interés general.

Capítulo II. Procedimiento

Artículo 11. Inicio y documentación.

1. El procedimiento se iniciará mediante la presentación de la solicitud de autorización de paso de vehículos, indicando y justificando su necesidad y adjuntando la siguiente documentación:

- a) Título de propiedad del inmueble al que da acceso el paso de vehículos o cualquier otro que acredite la legítima ocupación del mismo y, en todo caso, los datos de identificación del propietario.
- b) Licencia urbanística que ampare la actividad, cuando sea preceptiva conforme a la normativa vigente.
- c) Plano de situación del paso a escala 1/500 indicando la situación del inmueble.
- d) Plano a escala 1/100 que indique, en su caso, la superficie destinada a estancia de vehículos, que en ningún caso podrá ser inferior a 20 m² por plaza de vehículo, el número de plazas de aparcamiento por



dira aparkaleku kopurua ibilgailu mota bakoitzeko, espaloia- ren zabalera, sarbidearen zabalera eta pasabidearen zabalera. Gainera, eraginen bat jasoko duten elementu urbanistikoak aipatu beharko dira.

Nolanahi ere, ibilgailuek aurreraka sartu eta atera beharko dute beti. Salbuespenez, baldintza hori betetzetik salbuetsi ahal izango dira maniobra hori egitea ezinezkoa den kasuetan. Hala eta guztiz ere, kasu horietan, baimenaren eskatzaileak Udaltzaingoaren txostena aurkeztu beharko du, non egiaztatuko baita bide publikoko trafikoaren segurtasuna ez dela murriztuko ibilgailuak atzeraka sartu edo ateratzeagatik.

2. Pasabidea egiteko eskatzaileak obrak egin behar dituen kasuetan, ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

- a) Obretan erabiliko diren materialak zehazten dituen deskripzioko eta justifikazioko memoria; horrez gain, adierazi beharko dira materialen neurriak eta kalitateak, eta obran hartu beharreko seinaleztatze eta balizatze neurriak.
- b) Obraren exekuzioaren aurrekontua.

12. artikulua. Tramitazioa.

1. Ibilgailuen pasabideak baimentzeko prozedurak, nolanahi ere, ondorengo tramiteak barne hartuko ditu:

- a) Eskaerarekin batera, ordenantza honetako 11. artikuluan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da Hernaniko Udaleko dokumentu Erregistroan.
- b) Izapidearen epeen zenbaketari dagokionez, espediente hasiztat joko da dokumentazio guztia izapidetzerako organo eskudunaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera.
- c) Dokumenturen bat falta dela atzematen

cada clase de vehículos, ancho de acera, ancho del acceso a la finca y ancho del paso. Se señalarán además los elementos urbanísticos afectados.

En todo caso se justificará que los vehículos puedan entrar y salir marchando siempre de frente. Excepcionalmente, se podrá eximir de este requisito en los supuestos en que se justifique la imposibilidad de dicha maniobra. No obstante, en estos supuestos, el solicitante de la licencia deberá presentar informe emitido por la Policía Local en el que se manifieste que la seguridad del tráfico en la vía pública no se ve afectada por el acceso y salida de vehículos.

2. En los supuestos en que la solicitud de autorización conlleve la realización de obras por cuenta del solicitante, deberá además aportarse la siguiente documentación:

- a) Memoria descriptiva y justificativa en la que se indiquen los materiales que se van a utilizar en las obras con expresión de su dimensión y calidades, y medidas de señalización y balizamiento a adoptar durante la obra.
- b) Presupuesto de ejecución material de la obra.

Artículo 12. Tramitación.

1. El procedimiento para otorgar las autorizaciones de pasos de vehículos se ajustará, en todo caso, a los siguientes trámites:

- a) La solicitud, a la que se acompañará la documentación prevista en el artículo 11 de la presente ordenanza, se presentará en el Registro de entrada de documentos del Ayuntamiento de Hernani.
- b) A los efectos del cómputo de los plazos de tramitación, se considerará iniciado el expediente en la fecha de entrada de la documentación completa en el registro del órgano competente para su tramitación.
- c) En el caso de que la documentación se



baldin bada, hamar eguneko epea emango zaio interesatuari akatsa zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko, eta, halaber, adieraziko zaio hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua ezarri bezala. Behin dokumentazio guztia osatuta, baimena ematen edo ukatzen duen txostena egingo da. Proposamena baimena ematearen aldekoa bada, baimenaren indarraldia, modalitatea eta beharrezkoak diren baldintza guztiak zehaztu beharko dira.

- d) Organo eskudunak, gehienez ere, bi hilabeteko epean ebatziko du, espedientea hasitzat jotzen den dataren hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarotzen bada ebazpen espresurik eman gabe, horrek esan nahiko du uko egin zaiola eskaerari.

2. Aurreko atalean adierazitakoaz gain, organo eskudunak emandako pasabide baimenak gauzatzeko titularrak berak obrak egin behar dituzenean, ondorengo dokumentazio hau ere erantsi beharko da:

- a) Baimena kendu aurretik:

Udal Diruzaintzan abala jarri izanaren ordainagiria edo haren baliokidea dirutan; zenbatekoa izango da espaloia, galtzara eta udal ekipamenduak lehengo egoerara itzultzeko behar denaren baliokidea. Behin-behineko pasabideen kasuan, abalaren edo gordailuaren zenbatekoa bikoitza izango da, helburua baita, gainera, pasabidea kentzea haren eraikuntza justifikatzen zuen arrazoia desagertzen denean.

Ez dute berme hori jarri beharko azaroaren 27ko Estatuaren eta Erakunde Publikoen Laguntza Juridikoaren 52/1997

presentase incompleta, se requerirá al interesado para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe la documentación preceptiva, con indicación de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición, en los términos previstos en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Una vez completada la documentación, se emitirá informe que finalizará proponiendo el otorgamiento o la denegación de la autorización. Si la propuesta resulta favorable al otorgamiento deberá hacerse constar su vigencia, modalidad y cuantas condiciones resulte necesario precisar.

- d) La resolución del órgano competente deberá producirse en un plazo no superior a dos meses, contado desde el día siguiente a la fecha en que se considere iniciado el expediente. Transcurrido el mismo sin dictarse resolución expresa, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes.

2. Además de lo dispuesto en el apartado anterior, cuando las autorizaciones del paso otorgadas por el órgano competente impliquen la realización de obras cuya ejecución corresponda al propio titular, deberá aportarse:

- a) Con carácter previo a la retirada de la autorización:

Carta de pago acreditativa de haber depositado aval o su equivalente en metálico en la Tesorería Municipal, por importe igual al coste de reparación de la acera, calzada y equipamientos municipales a su estado original. Cuando se trate de pasos de vehículos provisionales el importe del aval o depósito será el doble, con el objeto de garantizar, además, la supresión del paso una vez finalizada la causa que justifique su construcción.

Estarán exentas de constituir esta garantía, las entidades que se relacionan en el artículo 12 de la Ley



Legearen 12. artikuluan aipatzen diren erakundeek.

- b) Obrak amaitzen direnetik hamabost eguneko epean, obra bukaerako ziurtagiria, non justifikatuko baita obrak bat datozela emandako baimenarekin eta betetzen dituztela ordenantza honetan ezarritako baldintza guztiak.

13. artikulua. Baimena ematea.

1. Alkateari dagokio –edota hark eskumen hori ordezkatzeko dion zinegotziari– Ordenantza honetan aipagai diren baimenak ematea.

2. Pasabidearen baimena jaso aurretik, eskatzaileak honakoak egiaztatu beharko ditu:

- a) Lokala irekitzeko eta/edo lehen erabilerako baimena lortu duela.
- b) Udal Ordenantza fiskaletan ezarritako betebeharrak ekonomikoak konplitu dituela.

14. artikulua. Lizentzia lortzeko bete behar diren baldintzak.

1. Pasabidearen baimena lortu baino lehen, eskatzaileak honakoak justifikatu beharko ditu:

- a) Espaloiko ertza beharrezko eta, hala badagokio, pasabidea indartzeko obrak egin izana, betiere Udalaren ikuskaritzapean.
- b) Udaltzaingoaren txostena, zeinak egiaztatu beharko du pasabideak ez diela trabarik egingo ez trafikoari ezta aparkalekuei ere.
- c) Udalari ordaindu izana indarreko Ordenantza Fiskalak ezarritako eskubideak.

2. Obrak guztiz bukatuta, Udal Zerbitzu Teknikoei jakinaraziko zaie, egindako lanak ikuskatu eta haiei buruzko txostena egiteko; txosten hori aldekoa bada, eta indarreko Ordenantza Fiskalak finkatutako prezio publikoa ordaindu ondoren, Alkateak, dagokien zerbitzuek egindako

52/1997, de 27 de noviembre, reguladora del Régimen de la Asistencia Jurídica al Estado e Instituciones Públicas.

- b) En el plazo de quince días a contar desde la finalización de las obras, certificado final de obra donde se justifique que aquéllas se ajustan a la licencia otorgada y cumplen con las condiciones establecidas en la presente ordenanza.

Artículo 13. Otorgamiento de la Licencia.

1. Corresponderá al Alcalde, o Concejal en quien delegue esta competencia, la concesión de las licencias objeto de la presente Ordenanza.

2. Con carácter previo a la concesión de la licencia de paso el solicitante deberá acreditar:

- a) Que ha obtenido licencia de apertura y/o de 1ª utilización del local según proceda en cada caso.
- b) Que ha satisfecho las obligaciones de naturaleza económica establecidas en las Ordenanzas fiscales del Ayuntamiento.

Artículo 14. Requisitos previos para la obtención de licencia.

1. Antes de obtener la licencia de vado, el solicitante deberá justificar:

- a) Haber realizado las obras de rebaje de bordillo, en su caso, y refuerzo de vado, bajo inspección municipal.
- b) Informe de la Policía Municipal, justificando no ser un elemento perturbador para las necesidades de tráfico y aparcamiento.
- c) Haber satisfecho al Ayuntamiento los derechos que señala la Ordenanza Fiscal vigente.

2. Una vez realizadas las obras completamente se dará cuenta a los servicios Técnicos Municipales para que inspeccione los trabajos efectuados y emitan informe, y tras el informe favorable de los mismos y previo pago del precio público que señale la Ordenanza Fiscal vigente, les será



proposamena oinarri harturik, pasabidearen baimena emango die.

Udalak baimen horren plaka bereizgarriak emango dizkio haien kostua ordaintzen duenean.

15. artikulua. Debekuak eta mugak.

